



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**



Dokumentu mota / Tipo de documento: **Legez Besteko Proposamena / Proposición no de ley**

Nori zuzendua / Dirigido a: Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordea / Comisión de DDHH, Igualdad y Justicia

Talde parlamentarioak / Grupos parlamentarios: EA-NV/EH BILDU/ES-SV/EP-IU

Data / Fecha: 2023.04.21

Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa: Guatemalan parte-hartze politikorako eskubideak urratzeari buruz // Sobre las vulneraciones de los Derechos de participación política en Guatemala

ZIOA

Eusko Legebiltzarrak Guatemalako errealitatea ezagutzeko aukera izan zuen giza eskubideen defendatzaileei aldi baterako harrera egiteko euskal programaren harira urtarrilean egindako bisitaren bidez. Horrekin batera, duela gutxi Guatemalako Movimiento para la Liberación de los Pueblos mugimenduko ordezkarien bisita ere jaso genuen.

JUSTIFICACIÓN

El Parlamento Vasco ha tenido oportunidad de conocer la realidad de Guatemala a través de la visita realizada en el mes de enero en el marco del Programa Vasco de Acogida Temporal a Defensoras de los Derechos Humanos. También recientemente recibimos la visita de representantes del Movimiento de Liberación de los Pueblos de Guatemala.



Hainbat analistak "ustelen itun" gisa izendaturikoak –militar aktiboek eta erretiratuek, enpresaburu handiek eta sektore mafiosoek osatutako aliantza– Estatuko erakundeen eta hiru botereen gainean duen kontrola nabarmen sendotu duela dirudi.

Estatua eta botere faktikoak kooptatzeko estrategia bati buruzko salaketak jaso ditugu; herritarren eskubideak bermatzeaz arduratu beharko liratekeen organismoak manipulatzeari lortu dute, botereari eusteko eta, hala, pribilegioak eta irabaziak bermatzeko, Guatemalako herriaren gehiengoaren kaltetan. Horrekin batera, Jordán Rodas giza eskubideen prokuradore ohia bere erbestealdi politikoa babesteko aukera izan dugu.

Estrategia hori herrialdeko bizitza sozial eta demokratikoaren eremu guztietara hedatzen da; hona hemen eragin dituen urraketen zenbait adibide:

- Hauteskunde Auzitegi Gorenak debekatu egin du Thelma Cabrerak eta Jordán Rodas Andradek osatzen duten Movimiento para la Liberación de los Pueblos izeneko presidentetza-binomioaren hautagaitza, bai eta Roberto Arzúren hautagaitza ere. Berriki, Hauteskunde Auzitegi Gorenak erabaki du Juan Francisco Solórzano Fopparen hautagaitza inskribatzen ez uztea, nahiz eta Semilla-Winaq-URNG koalizioaren babesa izan Guatemalako alkatetzarako.

El denominado por diversos analistas como "Pacto de corruptos" – una alianza compuesta por militares activos y retirados, grandes empresarios y sectores mafiosos – parece haber consolidado considerablemente su control sobre las instituciones y los tres poderes del Estado.

Hemos recogido denuncias acerca de una estrategia de cooptación del Estado, los poderes fácticos, han logrado manipular organismos que deberían velar por los derechos de las y los ciudadanos, con el fin de mantenerse en el poder y así garantizar privilegios y ganancias en detrimento de la gran mayoría del pueblo guatemalteco. Así mismo hemos tenido la ocasión de respaldar en su exilio político al ex procurador de los Derechos Humanos, Jordán Rodas.

Esta estrategia se despliega en todos los ámbitos de la vida social y democrática del país, con vulneraciones como:

- La prohibición por parte del Tribunal Supremo Electoral (TSE) de las candidaturas del binomio presidencial del Movimiento para la Liberación de los Pueblos, formado por Thelma Cabrera y Jordán Rodas Andrade, así como de la de Roberto Arzú. La reciente decisión del TSE de rechazar la inscripción de la candidatura de Juan Francisco Solórzano Foppa, avalado por la coalición Semilla-Winaq-URNG para la Alcaldía de Ciudad de Guatemala.



- Prentsak eraso larri eta errepikatuak jasaten ditu, hala nola José Rubén Zamora kazetaria, El Periódico egunkariko zuzendaria, espetxeratu izana, edo Carlos Ernesto Choc Chub Prensa Comunitaria argitalpeneko kazetaria kriminalizatu izana.

- Legeen eta oinarrizko eskubideen errespetuarekin konprometitutako operadore juridiko zintzoak jazarriak dira; esaterako, Virginia Laparra fiskal ohia espetxeratu dute, haren osasunari larriki eragiten dioten baldintzetan. Horrez gain, dozenaka operadore juridiko erbesteratu behar izan dira, beren bizitza eta askatasuna babesteko, hala nola Miguel Ángel Gálvez epailea, eta Thelma Aldana eta Juan Francisco Sandoval fiskal ohiak.

- Herri-erakundeetako kideen eta militanteen aurkako eraso, mehatxu eta jazarpen ugari izan dira.

Horregatik guztiagatik,

1. Eusko Legebiltzarraren ustez, eraso horien hedadurak eta garrantziak hauteskunde aske, bidezko eta gardenak izateko ezinbestekoa den espazio demokratikoaren benetako itxiera dagoela adierazten dute, eta dagoeneko zalantzan jartzen dituzte ekainaren 25eko hauteskundearen emaitzak.

2. Eusko Legebiltzarrak Guatemalako gizarte-erakunde eta sektore demokratikoekiko elkartasuna berresten du, eta berriz ere dei

- Los graves y repetidos ataques contra la prensa como el encarcelamiento del periodista José Rubén Zamora, director de El Periódico o la criminalización de Carlos Ernesto Choc Chub periodista de Prensa Comunitaria.

- La persecución en contra de operadores de justicia honestos y comprometidos con el respeto de las leyes y los derechos fundamentales, tales como el encarcelamiento de la ex fiscal Virginia Laparra, en condiciones que afectan gravemente a su salud. Además, decenas de operadores de justicia han tenido que salir al exilio para preservar su vida y su libertad, entre otros el juez Miguel Ángel Gálvez y los ex fiscales Thelma Aldana y Juan Francisco Sandoval.

- Los innumerables ataques, amenazas y persecuciones hacia militantes y miembros de organizaciones populares.

Por todo ello,

1. El Parlamento Vasco considera que la amplitud y magnitud de estos ataques constituye un verdadero cierre del espacio democrático, indispensable para la realización de elecciones libres, justas y transparentes y desde ya cuestionan los resultados de los comicios del 25 de junio.

2. El Parlamento Vasco reafirma su solidaridad con las organizaciones sociales y los sectores democráticos de Guatemala, y reitera su





egiten die Europar Batasuneko eta hura osatzen duten herrialde kideetako agintariei, premiaz jardun dezaten Guatemalako zuzenbide-estatua babesteko.

llamamiento a que las autoridades de la Unión Europea y de sus países miembro actúen urgentemente para la preservación del Estado de derecho en Guatemala.


Gasteizen, 2023ko apirilaren 21ean

En Vitoria Gasteiz, a 21 de abril de 2023


EP-II


EHBILDV.


EA-SV


EA-NV